



Iragarkia

HERNANIKO UDALA

Alkate honek bi mila eta hogeita biko irailaren batean ondorengo hau ebatzi du:

2022ko abuztuaren 16ko 2022/00001760 alkate Dekretu bidez, Hernaniko udaleko Hirigintza eta Ingurumen Saileko Buru (Lz 177 zk) lanpostua hornitzeko hautaketa prozesuaren onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen. Ebazpen hori udaletxeko iragarki taulan eta Hernaniko Udaleko web orrian (www.hernani.eus) argitaratu zen.

Onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrendari erreklamazioak egiteko epea amaitu da eta ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Hautaketa prozesua arautzen duten oinarriekin bat etorritz eta dagozkidan eskuduntzekin bat etorritz, eta eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

LEHENA: Hautagaien onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea, ebazpen honi atxikita doakiona.

BIGARRENA: Zerrenda hau Hernaniko Udaleko iragarki taulan, eta Hernaniko web orrialdean (www.hernani.eus) argitaratuko da.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman zuen organoari argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

ERANSKINA

Behin betiko onartuen zerrenda

IZTUETA

GARAICOETXEA

AITOR

***9638**

Behin betiko baztertuen zerrenda

Ez dago ez onartutako izengairik

Hernani, 2022ko irailaren 1a—Alkatea, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.